



2021UDOS0009

Andoingo Udala

**Akta: Osoko Udalbatza**

OHIKO BILKURA: 2021/09/30

**Acta: Pleno Municipal**

SESIÓN ORDINARIA: 30/09/2021

**Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos****Bildutakoak: / Asistentes:****Alkatea / La Alcaldesa** Maider Lainez Lazcoz**Zinegotziak: / Concejales:**

<b>EH-Bildu</b>	Andoni Alvarez Lete Estibalitz Mujika Tolaretxipi Jon Zulueta Berastegi Garazi Usandizaga Zubiria Julian López Aracama M <sup>a</sup> Teresa Etxeberria Arteun Xabier Fondón Pajares
<b>PSE-EE</b>	José Luis Verdasco Gutierrez Ascensión Parrón Peguero Petra Romero Pozo Oscar Mendo González
<b>EAJ-PNV</b>	Maria Jose Izagirre Iturzaeta Alexander Huitzi Alfonso M <sup>a</sup> Sagrario Ruiz Fernández Imanol Goenaga Egibar
<b>Elkarrekin Podemos</b>	M <sup>a</sup> Teresa Santana Rubio

Akta Zenbakia	<b>00000009</b>
Eguna	<b>2021/09/30</b>
Hasiera	<b>19.00</b>
Amaiera	<b>20.32</b>

**Idazkaria:**

Unai Rekondo Pérez

**Kontuhartzailea****Interpretaria**

Jon Unanue Lopez

**Gai Zerrenda:**

1. 2021/07/22(e)an egindako batzarraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

**Xedapenak**

2. HAPOko 48 Illarramendi HIEko b.02 lursaila zatitzeko eta b.01 eta b.02 lursailetakoa derrigorrezko lerrokatuak kentzeko xehetasun-azterketa behin betiko izaeraz onartzea.
3. HAPOko 48 Illarramendi HIEko a.3.01 eta c.05 lursailetakoa xehetasun-azterketa behin betiko izaeraz onartzea.
4. HAPOko 48 Illarramendi HAPOko Leizotz HEA 39ko B lurzati antolatze xehetasun-azterketa behin betiko izaeraz onartzea
5. 9/2021 zk.ko kreditu aldaketa espedientea.
6. N-1 errepedearen zarata dela eta herritarren ordezkari gisa M.T.O.jnk 2021.09.02 datan aurkeztutako mozioa, PSE-EE, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeek brematua.

**Orden del Día:**

- 1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 22/07/2021.

**Parte Dispositiva**

- 2.- Aprobación definitiva del Estudio de Detalle para la división de la parcela b.02 y eliminación de alineaciones obligatorias de las parcelas b.01 y b.02 del AIU 48 Illarramendi del PGOU.
- 3.- Aprobación definitiva del Estudio de Detalle de las parcelas a.3.01 y c.05 del AIU 48 Illarramendi del PGOU
- 4.- Aprobación definitiva del Estudio de Detalle para la ordenación de la parcela B del AIU 39 Leizotz del PGOU
- 5.- Expediente modificativo de créditos nº 9/2021
- 6.- Moción presentada el 02.09.2021 por M.T.O. en representación de los vecinos en relación a los ruidos de la N-1, avalada por los grupos municipales de PSE-EE, EH Bildu y Elkarrekin Podemos.



**Kontrola**

7. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 1351 zenbakidunetik 1740 zenbakidunera.
8. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

**Parte de Control**

- 7.- Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas entre la nº 1351 y la nº 1740.
- 8.- Ruegos, preguntas y propuestas.

---

**Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.**

---

Alkate andreak hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Arratsalde on guztioi eta eskerrik asko hona etortzeagatik, 2021ko irailaren 30eko udalbatzar honetara.

“Muy buenas tardes a todas y todos y bienvenidas al Pleno ordinario del 30 de setiembre de 2021.

“Lehenik eta behin, eta ikusiko duzue, lehenengo aldia da hemen guztiok esertzen garela gure tokietan eta bueno, ba, horrek esan nahi du, pixkanaka-pixkanaka, normaltasun batera edo, iristen ari garela eta horrexegatik, baita ere, udalbatzarrean horrela gaude eserita eta lehenengo aldia da, baita ere, publikoa izango duguna gurekin. Ongi etorriak izan zaizte eta mila esker gurekin izateagatik.

“Decía que, bueno, como se podrá ver en la imagen, volvemos a cierta normalidad y estamos los 17 concejales sentados en nuestros lugares habituales, entonces, bueno, la situación del Covid vamos poco a poco superándola y luego, pues, también, dar la bienvenida y agradecer la asistencia al público, porque hoy podemos abrir las puertas y que esteis aquí con nosotros y, sobre todo, agradeceremos vuestra presencia.

“Hasiera emango genioke gaurko udalbatzarrari.”

**1. 2021/07/22(e)an egindako bileraren akta irakurri eta onartzea, bidezko bada.**

Lehendabizi, 2021/07/22 datako batzarraldiari dagokion akta aztertzeari ekin zaio, eta inork ezer adierazi ez duela kontuan harturik, onartutzat eman da.

**2. HAPOko 48 Illaramendi HIEko b.02 lursaila zatitzeko eta b.01 eta b.02 lursailtako derrigorrezko lerrokadurak kentzeko xehetasun-azterketa behin betiko izaeraz onartzea.**

Ikusirik, 2021eko otsailaren 24an, Fermín Loidi Garayalde jaunak, Balfernorte SLren ordezkari gisa, HAPOko 48 Illaramendi HIEko b.02 lursaila zatitzeko eta b.01 eta b.02 lursailtako nahitaezko lerrokadurak kentzeko xehetasun-azterlana aurkeztu zuela. Azterlan hori Blanca Balda Sevilla arkitektoak idatzi zuen 2021eko otsailean.

Ikusirik, 2021eko apirilaren 8an, Balfernorte SL enpresaren izenean diharduen Fermín Loidi Garayalde jaunak HAPOko 48 Illaramendi HIEko b.02 lursaila zatitzeko eta b.01 eta b.02 lursailaren nahitaezko lerrokadurak kentzeko xehetasun-azterlana aurkeztu zuela. Azterlan hori 2021eko apirilean idatzi zuen Blanca Balda Sevilla arkitektoak eta bertan udal arkitekto aholkulariak 2021eko martxoaren 30ean egindako txostenean adierazitako alderdiak zuzendu zituen.

Ikusirik, Alkatetzak, 2021eko maiatzaren 14an emandako 897/2021 zenbakiko ebazpenaren bitartez, hasierako izaeraz onartu zuela aipaturiko xehetasun-azterlana, ebazpen berean jasotako baldintzarekin: dokumentua behin betiko izaeraz onartu baino lehenago, Sustapen Ministeritzako Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren txostena lortu beharko da, Andoain Donostiako aeroportuko aeronautika-zortasunen eraginpean baitago. Txosten hori 2021eko apirilaren 26an eskatu zen.

Ikusirik, ebazpena interesatuari jakinarazi zitzaioela eta xehetasun-azterketa eta espediente



administratiboa jendaurrean jarri zirela. Horretarako iragarriak argitaratu ziren udaleko iragarri taulan, 2021eko maiatzaren 28ko 99 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2021eko ekainaren 3ko Diario Vasco eta Berria egunkarietan eta udal web orrian. 2021eko uztailaren 2an bukatu zen jendaurreko epe horretan ez zen inolako alegaziorik aurkeztu, udaleko idazkariak 2021eko uztailaren 16an egindako ziurtagirian egiaztatzen duen bezala.

Ikusirik, ebazpena eta xehetasun-azterketa Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentura eta URA-Agencia Vasca del Agua-ra bidali zirela, lege sektorialean aurreikusitako txostenak egin zituzten.

Ikusirik, 2021eko maiatzaren 25ean jaso dela udaletxe honetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak emandako aldeko txostena.

Ikusirik, 2021eko ekainaren 2an jaso dela Sustapen Ministeritzako Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiak egindako aldeko txostena.

Ikusirik, 2021eko uztailaren 28an jaso direla Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak eta Ura-Agencia Vasca del Agua-k egindako aldeko txostenak, non hainbat baldintza jasotzen diren.

Kontuan izanik, jendaurreko epean ez dela inolako alegaziorik aurkeztu eta ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak, Sustapen Ministeritzako Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiak eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak eta Ura-Agencia Vasca del Agua-k egindako aldeko txostenak.

Ikusirik, era berean, udaleko behin-behineko idazkariak 2021eko abuztuaren 5ean egindako aldeko txostena.

Ikusirik, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune lansailak 2021eko irailaren 23a datako bilera emandako irizpena.

Verdasco jaunak, Hirigintza, Obrak, Ingurumen eta Landaguneko Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on. Buenas tardes. El estudio de detalle en cuestión se aprobó inicialmente el pasado 14 de mayo de 2021, fue sometido a exposición pública desde el 28 de mayo hasta el 2 de julio, tiempo durante el cual no recibió ningún tipo de alegación, cuenta con todos los informes favorables, informes sectoriales correspondientes al departamento de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de la Dirección de Aviación Civil del Ministerio de Fomento y cuenta también con informes favorables, tanto de la Confederación Hidrográfica del Cantábrico, como de la Agencia Vasca del Agua.

“Por lo tanto sometemos a su aprobación definitiva por votación en el Pleno.”

Jarraian, Usandizaga andreak, EH Bildu udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Badakigu esan duzun bezala, legalki, juridikoki eta teknikoki betetzen dituela baldintza guztiak, baina, bueno, bestetan esan dugun bezala eta lehenago Mercadonarekin pasa zen bezala, gaurko honetan Burger King eta Tedi dira Illarramendiko garapen honetan txertatzen direnak eta bueno, laburbilduz, dira 2 jarduera terziario, sartzen direnak lurzoru industrial batean eta, honek esan nahi du, bueno, jarduera industrialak ekartzen duen zuzenezko kalitatea eta honek ekartzen duen ostalaritzaren suspertzea eta inguruko enpresei lana emateari uko egiten zaiola eta jarraitzen dela Illarramendiko terziarizazioarekin ez, ba hori, penaz hartzen dugu ze bi jarduera hauek ekarriko dute herriko ehun komertziala oraindik eta gehiago kaltetzea.

“Azken finean, 2017koa den arren plan partziala, beste eragin bat plan orokorrarena, plan partzial hau, plan orokorrak baldintzatuta dago eta horregatik guztiagatik, guk kontrako botoa emango dugu.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Nuestra postura, como venimos manteniendo desde el principio, va a ser la abstención, porque es verdad que, legalmente y jurídicamente está todo correcto y, entonces, pues bueno, vamos a decir que tampoco pensamos que una negativa, cuando todo está legal, honestamente, pensamos que no es viable, pero, sí que nos vamos a abstener en este punto porque no estamos de acuerdo en el uso que se va a dar y además, siempre abogamos por el comercio local, porque haya un flujo de actividad en Andoain, más localizado, eso al final lo que va a traer es que al comercio local le va a afectar muchísimo, entonces, un poco como protesta, sabiendo que no hay nada que hacer y que está todo legal, como protesta, vamos a



seguir en nuestra postura y nos abstenemos.”

Berriro, hartu du hitza, Verdasco jaunak, honakoa esateko:

“Simplemente comentar . Este desarrollo urbanístico está impulsado por una promotora privada, que es la que decide que empresas se instalan en este polígono, nuestra obligación como ayuntamiento es velar porque técnica y jurídicamente cumplan con la normativa y bueno, destacar que al tratarse de nuevas empresas que llegan al municipio, nosotros lo vemos como una oportunidad de creación de puestos de trabajo para el municipio y una opción, tanto de consumo, como una opción comercial más para la ciudadanía. Al final, la ciudadanía es la que va a decidir donde va a querer comprar o, donde va a querer consumir.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, EH Bildu udal taldeko zinegotzien kontrako botoekin eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotziaren abstentzioarekin, honakoa erabaki du:

1.- Behin betiko izaeraz onestea HAPOko 48 Illarramendi HIEko b.02 lursaila zatitzeko eta b.01 eta b.02 lursailako nahitaezko lerrokadak kentzeko xehetasun-azterlana. Azterlan hori Balfer Norte SL enpresaren izenean diharduen Fermin Loidi Garaialde jaunak aurkeztu zuen eta Blanca Balda Sevilla arkitektoak idatzi zuen 2021eko apirilean. Behin betiko onarpena Ura-Agencia Vasca del Agua-ren txostenean jasotako baldintza honekin ematen da: xehetasun-azterketa honetan burutuko diren lanen exekuzio proiektuan hurengo zehaztapen lotesleak bete beharko dira:

- Hornidura eta saneamendua kudeatzen duen erakundearen ziurtagiria, garapen proposamena berriei ekiteko azpiegitura nahikoak daudela bermatzen duena, eta hondakin-uren saneamendua Adunako Uraldeko HUAri konektatuta egotearen baldintzapean.

- Dokumentazio grafikoa, hondakin-urak inguruko ur beltzen saneamenduko udal-sarera nola konektatzen diren eta “Andoainen Ziako errekaen saneamendu-proiektua” delakoan egitea aurreikusten den kolektorera nola konektatzen diren adierazten duena. Girder Ingeniería enpresak idatzi zuen 2012an. Era berean, aditzera eman beharko du euri-urak Ziako errekaen trazadura berriarekin lotuko direla etorkizunean, Andoingo udalerriko hiri-eremutik igarotzen den Ziako errekaen uholdeen aurkako defentsarako proiektuan gauzatu beharrekoak.

2.- Behin betiko onespenez erabaki hau, aipatu Xehetasun-azterketaren hirigintza-araudiarekin eta ordenantzekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal web orrian argitaratuko dira.

3.- Erabaki hau jakinaraztea Balfer Norte SL enpresaren izen eta ordezkapenean jarduten duen Fermin Loidi Garaialde jaunari. Jakinarazpenean azalduko zaie, halaber, administrazioarekiko auzi-helegitea aurkez dezaketela Bilbon dagoen Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Aretoan bertan adieraziko den epearen barruan.

### **3. HAPOko 48 Illarramendi HIEko a.3.01 eta c.05 lursailtako xehetasun-azterketa behin betiko izaeraz onartzea.**

Ikusirik, 2020ko azaroaren 4an, José M<sup>a</sup> Abad Urruzola jaunak, Balfernorte SL eta José Ángel Gaztañaga jaunaren izenean, HAPOko 48 Illarramendi HIEko a.3.01 eta c.05 lursailtako xehetasun-azterlana aurkeztu zuela. Azterlan hori José M<sup>a</sup> Abad Urruzola eta Ana Goñi Agudo abokatuek eta Blanca Balda Sevilla arkitektoak idatzi zuten 2020ko urrian.

Udal arkitekto aholkulariak 2021eko martxoaren 18an egindako txostena ikusita, 2021eko apirilaren 9ko idazkiaren bidez, eskatzaileari jakinarazi zitzaion aipatutako proiektua izapidetzeko idazkian bertan aipatutako gauzak zuzendu behar zirela.

Ikusirik, 2021eko apirilaren 8an, José M<sup>a</sup> Abad Urruzola jaunak HAPOko 48 Illarramendi HIEko a.3.01 eta c.05 lursailtako xehetasun-azterlana aurkeztu zuela. Azterlan hori 2021eko apirilean idatzi zuten José M<sup>a</sup> Abad Urruzola eta Ana Goñi Agudo abokatuek eta Blanca Balda Sevilla arkitektoak eta bertan udal arkitekto aholkulariak 2021eko martxoaren 18an egindako txostenean adierazitako alderdiak zuzendu zituen.

Ikusirik, Alkatetzak, 2021eko maiatzaren 14an emandako 898/2021 zenbakiko ebazpenaren bitartez,



hasierako izaeraz onartu zuela aipaturiko xehetasun-azterlana, ebazpen berean jasotako baldintzekin: a) Dokumentua behin betiko izaeraz onartu baino lehenago, Sustapen Ministeritzako Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren txostena lortu beharko da, Andoain Donostiako aeroportuko aeronautika-zortasunen eraginpean baitago. Txosten hori 2021eko apirilaren 26an eskatu zen, eta b) c.05 hirigintza-fitxa zaharra zuzentzea, jabariaren araubide orokorra gehituz.

Ikusirik, ebazpena interesatuari jakinarazi zitzaioela eta xehetasun-azterketa eta espediente administratiboa jendaurrean jarri zirela. Horretarako iragarkiak argitaratu ziren udaleko iragarki taulan, 2021eko maiatzaren 28ko 99 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2021eko ekainaren 2 eta 3ko Gara eta Diario Vasco egunkarietan eta udal web orrian. 2021eko uztailaren 2an bukatu zen jendaurreko epe horretan ez zen inolako alegaziorik aurkeztu, udaleko idazkariak 2021eko uztailaren 16an egindako ziurtagiria egiaztatzen duen bezala.

Ikusirik, ebazpena eta xehetasun-azterketa Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentura eta URA-Agencia Vasca del Agua-ra bidali zirela, lege sektorialean aurreikusitako txostenak egin zitzaizkion.

Ikusirik, 2021eko maiatzaren 25ean jaso dela udal txosten honetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak emandako aldeko txostena.

Ikusirik, 2021eko ekainaren 2an jaso dela Sustapen Ministeritzako Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiak egindako aldeko txostena.

Ikusirik, 2021eko uztailaren 29an jaso direla Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak eta Ura-Agencia Vasca del Agua-k egindako aldeko txostenak, non hainbat baldintza jasotzen diren.

Kontuan izanik, jendaurreko epean ez dela inolako alegaziorik aurkeztu eta ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak, Sustapen Ministeritzako Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiak eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak eta Ura-Agencia Vasca del Agua-k egindako aldeko txostenak.

Kontuan izanik, hasierako onarpena ematen zuen erabakian jasotako bigarren baldintza bete dela. Hori egiaztatzeko 2021eko maiatzean idatziko dokumentua aurkeztu da eta bertan c.05 hirigintza-fitxa zaharra zuzendu baita, bertan jabariaren araubide orokorra gehituz.

Ikusirik, era berean, udaleko behin-behineko idazkariak 2021eko abuztuaren 6an egindako txostena.

Ikusirik, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune lantsailak 2021eko irailaren 23a datako bileran emandako irizpena.

Verdasco jaunak, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landaguneko Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa eateko:

“Comentar que el estudio de detalle en cuestión fue aprobado con carácter inicial el 14 de mayo del presente año. Se sometió a exposición pública, durante el período de exposición pública no ha recibido ningún tipo de alegación. Cuenta con los informes sectoriales favorables, tanto del Departamento de Infraestructuras Viarias de Diputación Foral de Gipuzkoa, como de la Dirección de Aviación Civil del Ministerio de Fomento, informes favorables también emitidos por la Confederación Hidrográfica del Norte y la Agencia Vasca del Agua. Por lo tanto, sometemos a votación del pleno su aprobación definitiva.”

Gaia eztabaidara jarri du Alkate andreak eta parte-hartzerik izan ez denez, jarrian proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Behin betiko izaeraz onestea HAPOko 48 Illarramendi HIEko a.3.01 eta c.05 lursailetakoa xehetasun-azterlana, José M<sup>a</sup> Abad Urruzola eta Ana Goñi Agudo abokatuek eta Blanca Balda Sevilla arkitektoak idatzi zutena 2021eko urrian, 2021eko maiatzean aurkeztutako dokumentuan jasotako aldaketekin, non dokumentuaren hasierako onarpen-erabakian jasotako baldintza jasotzen den. Behin betiko onarpena Ura-Agencia Vasca del Agua-ren txostenean jasotako baldintza honekin ematen da: xehetasun-azterketa honetan burutuko diren lanen exekuzio proiektuan hurengo zehaztapen lotesleak bete beharko dira:

- Hornidura eta saneamendua kudeatzen duen erakundearen ziurtagiria, garapen proposamena



berriei ekiteko azpiegitura nahikoak daudela bermatzen duena.

- Dokumentazio grafikoa, hondakin-urak inguruko ur beltzen saneamenduko udal-sarera nola konektatzen diren eta “Andoainen Ziako erreka saneamendu-proiektua” delakoan egitea aurreikusten den kolektorera nola konektatzen diren adierazten duena. Girder Ingeniería enpresak idatzi zuen 2012an. Era berean, aditzera eman behar du euri-urak Ziako erreka trazadura berriarekin lotuko direla etorkizunean, Andoingo udalerriko hiri-eremutik igarotzen den Ziako erreka uholdeen aurkako defentsarako proiektuan gauzatu beharrekoak.

- Hondakin-uren saneamendua Adunako Uraldeko HUARI konektatuta egotea baldintzatu eta bermatzen duen ziurtagiria.

2.- Behin betiko onespenez erabaki hau, aipatu Xehetasun-azterketaren hirigintza-araudiarekin eta ordenantzekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal web orrian argitaratuko dira.

3.- Erabaki hau jakinaraztea Balfer Norte SL eta José Angel Gaztañaga enpresaren izen eta ordezkapenean jarduten duen José María Abad Urruzola jaunari, nola baita ere administrazio-espeditentean interesatua gisa agertzen diren beste guztiei. Jakinarazpenean azalduko zaie, halaber, administrazioarekiko auzi-helegitea aurkez dezaketela Bilbon dagoen Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Aretoan bertan adieraziko den epearen barruan.

#### **4. HAPOko 48 IllarrHAPOko Leizotz HEA 39ko B lurtzia antolatze xehetasun-azterketa behin betiko izaeraz onartzea.**

Kontuan izanik, 2021eko martxoaren 2an Juan Ignacio Nogueras Machain jaunak Calderería Arrospe S. Coop. kooperatiba sozietatea ordezkatzuz, Andoingo HAPOko Leizotz HEA 39ko B lurtzia antolatze xehetasun-azterlana aurkeztu zuela, berak idatzia, 2021eko otsailean.

Kontuan izanik, 2021eko martxoaren 5ean, inguruko lursailtako jabeak diren Metalinox Bilbao SAU, Talleres Mendi SL eta Urkiondo Ekolur SL enpresek emandako hiru ziurtagiri aurkeztu zituztela interesdunek. Ziurtagiri horietan adierazten da ez dutela inolako eragozpenik Arrospe S. Coop. enpresaren instalazioetan atzeko estalki bat eraikitzeko.

Kontuan izanik, Alkatetzak, 2021eko maiatzaren 17an emandako 913/2021 zenbakiko ebazpenaren bitartez, hasierako izaeraz onartu zuen aipaturiko xehetasun-azterlana, ebazpen berean jasotako baldintza honekin: dokumentua behin betiko izaeraz onartu baino lehenago, xehetasun-azterlanaren CDA aurkeztu behar da (formatu digitala eta pdf-a) eta Sustapen Ministeritzako Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren txostena lortu behar da, Andoain Donostiako aeroportuko aeronautika-zortasunen eraginpean baitago.

Verdasco jaunak, Hirigintza, Obrak, Ingurumen eta Landaguneko Zinegotzi Ahalduak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“El estudio de detalle se aprobó inicialmente el pasado 17 de mayo, ha estado sometido, también, a exposición pública durante un período de 20 días. Durante ese periodo no se ha recibido ningún tipo de alegación. Cuenta con informes favorables del departamento de Aviación Civil del Ministerio de Fomento e informes favorables también de la Confederación Hidrográfica del Norte y de la Agencia Vasca del Agua, además de contar también, con los permisos de las empresas colindantes. Por lo tanto, sometemos a consideración del pleno su aprobación definitiva.”

Gaia eztabaidara jarri du Alkate andreak eta parte-hartzerik izan ez denez, jarrian proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Behin betiko izaeraz onestea Calderería ARROSPE S.COOP. enpresaren izenean diharduen Juan Ignacio Nogueras Machain jaunak 2021eko martxoaren 2an aurkeztu zuen Andoingo HAPOko HEA-39 LEIZOTZ eremuaren xehetasun-azterketa, Juan Ignacio Nogueras Machain berak idatzia 2021eko otsailean. Behin betiko onarpena URA- Agencia Vasca del Agua-ren txostenean jasotako baldintza honekin ematen da: xehetasun-azterketa honetan burutuko diren lanen exekuzio proiektuan hurrengo zehaztapen lotesleak bete behar dira:

- Saneamendua kudeatzen duen erakundearen ziurtagiria, hondakin-urak saneamendua Adunako



Uraldeko HUAri konektatuta egotea baldintzatu eta bermatzen duena.

- Dokumentazio grafikoa, hondakin-urak inguruko ur beltzen saneamenduko udal-sarera nola konektatzen diren eta “Andoainen Ziako erreka saneamendu-proiektua” delakoan egitea aurreikusten den kolektorera nola konektatzen diren adierazten duena. Girder Ingenieria enpresak idatzi zuen 2012an.

2.- Behin betiko onespenez erabaki hau, aipatu Xehetasun-azterketa, hirigintza-araudiarekin eta ordenantzekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal web orrian.

3.- Erabaki hau jakinaraztea Caldereria ARROSPE S.COOP. enpresaren izen eta ordezkapenean jarduten duen Juan Ignacio Nogueras Machain jaunari eta ukitutako beste jabeei. Jakinarazpenean azalduko zaie, halaber, administrazioarekiko auzi-helegitea aurkez dezaketela Bilbon dagoen Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Aretoan bertan adieraziko den epearen barruan.

### **5. 9/2021 zk.ko kreditu aldaketa espedientea.**

“Kreditu gehigarrien bidezko kreditu aldaketaren 2021/09 zenbakidun espedientearen onartzeko proposamena”

Besteak beste, kontuan izanda:

- Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak 2021.09.21an aho batez emandako aldeko proposamena (Teknikariaren txostena dago)

- Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta gazteria Batzorde Informatzaileak 2021.09.15ean aho batez emandako aldeko proposamena

- Zerbitzu Batzorde Irizpenemaileak Ekonomia, Ogasun eta Kontuetarako berezia den Batzorde Irizpenemaileari luzatu zion 2021.09.06ko proposamena.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2020/09 zenbakiko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzaileak 2021/09/24(e)ko bileran emandako aldeko irizpena. Alkate andreak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kasu honetan, Ogasuneko Batzordetik pasa zen eta hemen kreditu gehigarria proposatzen da, 219.471 eurokoa.

“Pasó por la Comisión de Hacienda y se propone un crédito adicional de 219.471 euros.

“Hori zehaztuz, izango lirerateke 45.471 euro, Gizarte Zerbitzuetako etxez etxeko zerbitzuari dagokion faktura bat ordaintzeko, 2020 urtekoa, baina enpresak 2021ean aurkeztu zuena, fakturaren data 2020koa izanda, orduan, erregularizazio bat egin beharko genuke.

“La primera correspondiente a una factura del servicio de ayuda a domicilio que siendo de diciembre de 2020, fué presentada por la empresa en enero de 2021, con fecha de 2021, conllevaría ahora hacer la regularización de dicha factura, por importe de 45.471 euros.

“Bestetik, egongo lirerateke beste biak, bata, 3.500 eurokoa eta beste bat, 20.000eurokoa, Beterri-Buruntzako fakturei aurre giteko.

“Habría otros dos modificativos, que conllevarían, bueno, modificativos no, perdón, partidas. Una de 3.500 euros y la otra de 20.000 euros, en relación a facturas de Beterri-Buruntza.”Mankomunitatekoak, sinatutako hitzarmenekoak.

“Correspondientes al convenio firmado para Beterri-Buruntza eta azkenik, zerbitzuetatik pasatu zirenak, izango liratezkeenak, 40.000 eurokoa, RMC Mobiliario Urbano, 10.000 eurokoa, energia eléctrica, accesos, 10.000 eurokoa, material servicios, 15.000 eurokoa, combustible vehículos limpieza, 10.000 eurokoa, energia eléctrica alumbrado eta 5.500 eurokoa, vehículo brigada moto eléctrica.

“Bestetik, 60.000 eurokoa, Sorabillan komun bat jartzeko.

“Los últimos modificativos correspondían al departamento de servicios. 40.000 euros para RMC Mobiliario Urbano, 10.000 euros, energía eléctrica, accesos, 10.000 euros, material servicios, 15.000 euros, combustible vehículo limpieza, 10.000 euros, energía eléctrica alumbrado, 5.500 euros para un vehículo para la brigada, una moto eléctrica y 60.000 euros para colocar un baño público en el barrio de Sorabilla.

“Lehen aipatu dudana bezala, guztira, 219.171 eurokoa.

“En total, 219.471 euros.”



Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Alvarez jaunak, EH Bilduko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on, guztioi. Azken plenoak kreditu aldaketei buruz daramatzagu hitz egiten eta ez naiz gehiegi luzatuko. Gure bozka aldekoa izango da, baina, aldaketa hauetan, kreditu aldaketa hauetan, gastu korrontea dago, bere garaian, Lainez andreari, Alkateari, eskatutako inbertsioetako zerrendan agertzen ez diren gauza batzuk daude eta, eskatu nahi dugu, bihar, urrian sartzen gara eta, 2022ko aurrekontua erreala goa izatea, ondoren ez ibiltzeko udalbatzaz udalbatza kredituak gora eta behera. Aldekoa izango da, inbertsio batzuekin ados gaude, baina, eskatzen dugu, 2022ko aurrekontuei begira, aurrekontu erreala goa egitea.”

Part-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulakolaburpen honen arabera:

#### KREDITU GEHIAGARRIAK:

KAP.	IZENA	GEHIKUNTZAK
2	GASTUAK ONDASUN ARRUT ETA ZERBITZUETAN	133.971,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	20.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	65.500,00
<b>KREDITU GEHIAGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>219.471,00</b>

#### FINANTZAKETA

KAP.	IZENA	GEHIKUNTZAK
8 (SARRERAK)	DIRUZAINTZAKO GERAKINA	219.471,00
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>		<b>219.471,00</b>
<b>KREDITU GEHIAGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>219.471,00</b>

2.- Jendurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

3.- Udal aurrekontuaren dirulaguntza eranskinaren aldaketa proposatu delako, jendurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez badira eranskinarenaldaketa erabakiarena hau behin betikotzat joko da. Aurreko puntuan adierazi den bezala espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

**6. N-1 errepidearen zarata dela eta herritarren ordezkari gisa M.T.O.jnk 2021.09.02 datan aurkeztutako mozioa, PSE-EE, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeek bermatua.**

Idazkari jaunak, hartu du hitza eta herritarrei zuzenduta, honakoa esateko:

“Komentatu behar dut bilkura hau grabatzen ari garela, eta era berean streaming bitartez zuzenean





ematen dela. Orduan, grabatzeko eta difunditzeko interbentzio hau zuen baimena beharko genuke espreski. Badago irizpen bat Datuak Babesteko Euskal Bulegoarena, ez zinegotzien eta funtzionarioen kasuan, baina bai ikusleak grabatu eta hau difunditu behar baldin bada, berariazko baimena eman behar dela dioena.”

“Decía en euskera que se está grabando esta sesión y difundiéndola en directo por streaming, y en este caso, a diferencia del caso de los concejales y funcionarios, el dictamen de la Agencia Vasca de Protección de Datos 19/01 establece que se tiene que solicitar el consentimiento expreso de la persona de la que se vaya a grabar y difundir su imagen.”

Beraz, hau baimentzen duen galdetu dio herritarrari, honek baietz erantzun duelarik.

Herritar batek mozioa irakurri du jarraian, honakoa diona:

“Azken urteotan, andoaindarrek hainbat kexa aurkeztu dituzte N-1 errepideko ibilgailuen trafikoa sortzen duen zaratagatik. Izan ere, N-1 errepidea igarotzen den eta zarata arintzeko sistemarik ez dagoen Gipuzkoako herri bakarra gara.

“Andoingo Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari (GFA) arazoa konpontzeko neurriak eskatuz aurkeztu dizkion errekerimenduak ezagutzen ditugu, baina erantzuna beti berdina izan da: INOLAKO KASURIK EZ.

“GFAk, bere garaian, N-1 errepidea tunel batzuen bidez herritik urruntzeko proiektu erraldoi bati buruz hitz egin zuen, baina aurrekonturik ez zegoenez, ez zen inoiz gauzatu. Idatzi hau ez dago horretara zuzenduta; ez dugu proiektu erraldorik eskatzen, baizik eta behingoz entzun gaitzatela, horrela bizi-kalitate hobea izan dezagun.

“Gauza jakina da azken asteetan sinadurak bildu direla herrian GFARI ekintzak eskatzeko. Guztira 5100 sinadura aurkeztu dira. Ikusten duzuenaz, aldarri orokorra izan da eta herri osoa batu da, ideia politikoak alde batera utzita.

“Horregatik, Andoingo Udaleko osoko bilkurari honakoa eskatzen diogu:

“1.- Andoingo udalak 5100 andoaindar baino gehiagoren eskaera babestea.

“2.- Gipuzkoako Foru Aldundiari, pantaila akustikoak edo beste irtenbide tekniko bat ezartzea, prebentzio-neurri gisa, behin betiko proiektua definitu arte.”

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bakarrik gehitu, karpeta honetan daudela zuek aurkeztutako 5.100 sinadura horiek. Solo añadir que, aquí están, en esta carpeta, las 5.100 firmas que presentaron ustedes acompañando a esta moción.”

Jarraian, Alvarez jaunak, EH Bilduko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Mozioari erantzunez, alde gaude, baina, baita ere, iruditzen zaigu gaia kokatu behar dela, zeren, hau, urte luzeetatik datorren gaia da eta pixka bat kokatze aldera, kronologia pixka bat egin nahi dut, batez ere, hauen eskaera ikusita eta uztailean Aldundiak aurkeztu zuen proiektua ikusita.

“Esan dudana bezala, gaia aspaldidanik dator, bere garaian, 1997ko Arau Subsidiarioetan onartu zen N-1 herrigunetik atera eta Oria ibaiaren beste aldera eramatea. Ondoren, urte batzuetara, 2011ean bariantearen proiektua edo, deitzen zaion proiektu definitibo hori aurkeztu zen eta 2011ko maiatzean onartu zen Andoingo Plan Orokorrak proiektu hau hartzen du kontuan.

“Hurrengo urteetan, Andoingo Udalak eskatu izan du, alde batetik, bariantearen proiektua ejekutatzea eta bestetik, N-1ak sortzen dituen soinuei aurre egitea, panelak edo, behar diren neurriak ezartzea.

“Horretarako, besteak beste, 2011-2015 urte horietan, panelak jartzeko Diputazioak exijitzen zuen zarataren mapa egin zen, horretan lehenengo udalerrria izan zen Andoain eta, beste hainbat eta hainbat eskaera egin ziren eta, batzuk zehaztu arren, 2017ko urriak 26ko udalbatzan EH Bilduk mozio bat aurkeztu zuen, panelak eskatzeko Aldundiari eta, alderdi gehienek bat egin zuten baina PNVk aurka bozkatu zuen, besteak beste, panelen eraginkortasuna zalantzan jarriz eta abar.

“2018ko azaroaren 29ko Hirigintza Batzordean, errepideen planari erantzunez, aho batez, alderdi guztiek Aldundiari bariantearen proiektua ejekutatzeke esan zioten eta, ordurarte, behintzat, alderdi guztiek eta Andoainek izan dituen Alkate guztiek plan hori defendatu izan dute, baina, 2019ko



martxoaren 31ean, Andoingo EAJ/PNV alderdiak, Mari Jose Izagirre andrearen eskutik, Bazkardoko arazoa konpontzeko plan bat aurkeztu zuen eta bertan esan zuen, Aldundiaren babesa zuela, hitzez hitz, honakoa esan zuen:

“Izagirre ha propuesto una solución que mejora la funcionalidad y capacidad de la conexión actual, con una inversión más reducida, con la construcción de un nuevo viaducto. EAJ/PNV de Andoain apuesta por hacer realidad esta nueva alternativa que cuenta con el visto bueno del departamento de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

“Hau da, ordurarte, herrian, alderdi guztien aldetik zegoen eta, Alkate izan ziren guztien aldeko, kontsentsu hura, nolabait hautsi egin zen. Geroztik, agintaldi honetan, hainbat batzordetan eta hainbat udalbatzarretan galdetu dugu zein zen proiektu hori, 2019ko martxoaren 31an, albistea egin zen publikoa ez proiektua. Orduan, galdetu genuen behin baino gehiagotan, zehazki, 2020ko otsailaren 27an, galde erreguetan, N-1ri buruz galdetzen dugu, aurrez egin ziren auzoz auzoko bileretan, Lainez andreak, Alkate bezala, behin baino gehiagotan esan zuelako, bariante hori ez zela egingo. Hori zen guk esaten genuena. Bere erantzun literala hau da:

“-Yo no creo que en ninguna reunión haya dicho que el ayuntamiento renuncia a seguir pidiéndola.- Hau da, guk esaten genuen, aizu hemen, egon diren Alkate guztiak, Diputazioari esan diote bariante hori ejekutatu behar dela eta auzoz-auzokoetan hori ulertu genuenez, Lainez andreak dio, -ez, ez, guk ez dugu esan ...que renunciamos a seguir pidiéndola.

“2020ko ekainaren 25ean, mozio bat erregistratzen dugu, guk, bariantearen proiektua lantzeko eskatuz eta PSOE eta EAJk beste mozio bat aurkeztu zuten, gaur egun hori egingarria ez zela esanez, eta abar. Ondoren 2021eko uztailan Foru Aldundiak egitasmo berria aurkezten du.

“Hor kokatuta, orain arte gertatutakoa, baina, gure ustez, garrantzitsua da orain arte zer gertatu den jakitea, baina, garrantzitsuagoa da hemendik aurrera zer egingo dugun jakitea.

“Orduan, gure iritzia zein da? Ba, uztailan Aldundiak aurkeztu zuen proiektuak ez ditu Andoainek dituen arazoak konpontzen. Konpontzen du Andoain parean dagoen trafiko arazo hori, hori konpontzen du. Baina, Andoainek dituen arazoak, kutsadura, soinua, Alejandro Calonjeren bertebrazioa eta Andoain bertebrazioa...,arazo horiek ez ditu konpontzen.

“Zer da horren aurrean esaten duguna? Ez dezagun aurrera jarraitu Andoingo arazoak konpontzen ez dituen proposamen batekin. Trafiko arazoak konpontzeko du baino, ez Andoingo arazoak, orduan, guk diogu, bazegoen 2010-2011 egitasmo, proiektu bat, gure ustez abiapuntu bezala, han ekarpenak, modifikazioak egin beharko dira, baina arazoak konpontzen zituen eta, esaten duguna, baita ere da, bitartean bizilagun hauek dioten bezala, panelak eta egingo diren proiektu hauek, bai bata, zein bestea, urte luzeetarako izango dira eta bitartean, bizilagun hauek dioten bezala, panelak edo panelak ez direnak, baino, soinua, soinua arintzen lagunduko duten baliabideak jarri beharko dira.

“Aurreko Higintza batzordearen bilera batean, esan genuen bezala, gaiaren garrantzia ikusita, atzo bilera ireki bat ere deitu zen, bileran ikusi zen jendeak parte hartzeko gogoia ere baduela, ez dira lan bilerak, bilerak horiek iritzia jasotzeko dira, termometro gisa, baino, ez dira lan bilerak eta guk duela bi aste esan genuen bezala, gure ustez gai honek behar du mahai bat osatzea, udaleko, zinegotzi, teknikari eta herri eragile edo herritarrek. Hori da guk ikusten duguna eta hori da gure proposamena.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Desde nuestro grupo, apoyo total a los vecinos con la problemática que hay, nuestras firmas también están ahí, vemos que es un problema al que hay que dar solución ya. Nosotros no tenemos memoria anterior, porque no estábamos, pero, si que vemos que es un problema que lleva muchísimos años, al final, cada vez, esa carretera absorbe más tráfico, es un problema continuado que, como bien expusieron ayer los vecinos, hace la vida insufrible e, incluso, yo creo que, la salud de los vecinos queda mermada por el problema que es, lo que piden en la moción, pensamos que hay que dar una solución ya, y que, si en vez de cuatro veces a la Diputación, hay que llamarle semanalmente todas las semanas o hay que hacer lo que sea, habrá que hacerlo, quiero decir, yo he estado recogiendo recortes de periódicos.

“Los municipios de Gipuzkoa que tenían ese problema se les ha ido solucionando, a Andoain no.



Otras Alcaldesas están ahí, yo no digo que cuatro veces al año, a lo mejor le parezca al equipo de gobierno que se suficiente, pero si no hay un resultado, es que no es, entonces a lo mejor habrá que tomar alguna otra medida, habrá que hacer alguna presión diferente para que se solucione el problema, porque claro, los que no vivimos en primera línea de carretera pues estamos muy tranquilos y muy bien.

“Pero el día a día de estas personas, como decimos cada día hay más tráfico y todo, no resulta soportable. Yo se que las instituciones tienen responsabilidad cero, pero si las instituciones, en vez de instituciones fueran personas físicas, pues seguramente se les exigiría una responsabilidad, porque claro, si la organización mundial de la salud está diciendo que hay unas medidas de ruido y se está pasando más del doble y es día a día, día a día y, no se soluciona nada, pues a lo mejor en un momento dado sí que demandaríamos a una persona si produce ese ruido, sin embargo como las instituciones al final tienen patente de corso para hacer un poco lo que les da la gana, pues no se hace y, yo, como persona, vecina del barrio y empática con todo lo que están sufriendo porque, bueno, yo, a ver, yo vivo en Rikardo Arregi kalea y solamente pasan los autobuses y hay momentos en los que pasan los autobuses que es que ya no oyes nada más. Entonces, me imagino el horror que tiene que ser vivir ahí. Vivir, día a día, día a día, día a día y que la solución de este ayuntamiento sea, que es que ya nos reunimos cuatro veces al año, cuatro veces al año, o sea, yo de verdad, a lo mejor soy muy ochentera, pero es que a lo mejor teníamos que parar la Nacional-1 todos, o sea hasta que se solucione, entonces quiero decir que no me parece que sea una solución contundente, que habrá que hacer algo para que les pongan, yo no hablo de megaproyectos, porque sé lo que hay y, sé que hay cosas que se hacen provisionales y se quedan para siempre, al final es así. Vamos a ser realistas. Ya tenemos una edad y ya sabemos lo que pasa, pero, pienso, pienso que si se han puesto en todos los demás municipios paneles, no sé, diez millones y pico, no sé cuánto, he leído hoy que se han invertido, 10,1 millones para aliviar el ruido por tráfico. ¿Qué pasa? ¿Es que Andoain no tiene derecho? No entiendo, entonces, no entiendo que desde el equipo de gobierno, de verdad se lo digo Sra. Alcaldesa, o sea, que se diga, estamos manteniendo reuniones con la Diputación, es que nos hemos reunido como cuatro veces al año, ¿Y? ¡Cuatro veces al año! Igual hay que estar todas las semanas llamando y a ver qué pasa con nuestros paneles.

“No sé cual es la solución, eh... Yo pienso que voluntad política tienen, pero que si esa estrategia no sirve, habrá que cambiarla. Desde luego tienen todo nuestro apoyo, si hay que hacer algo, pueden contar con nosotros y, nada más, quería decir eso, al margen del proyecto que se haga o no se haga, que eso ya es otra historia, al margen de eso, a esto hay que darle una solución inmediata.

“Está invitada a tomar un café a casa de una señora, a lo mejor sería bueno que fuera para que nos comente la sensación de vivir con ese ruido. Ésa es nuestra posición.”

Jarraian, Verdasco jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Desde el grupo municipal socialista trasladar nuestra solidaridad a nuestros vecinos y vecinas que padecen diariamente el problema del ruido y entendemos y compartimos su malestar. Voluntad política, hemos tenido voluntad política. Indicar que como ayuntamiento hemos trasladado a la Diputación Foral de Gipuzkoa en diferentes ocasiones la problemática que sufre nuestro municipio. Hemos enviado propuestas, soluciones para mitigar el ruido, hemos solicitado concreción en los plazos de ejecución de las actividades recogidas en el plan de acción contra el ruido. En definitiva, hemos estado preocupados por la situación acústica del municipio y así pretendemos continuar.”

Jarraian, Izagirre andreak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on. En primer lugar quiero agradecer el trabajo y el esfuerzo que han realizado en la recogida de las firmas en torno a una causa relacionada con la búsqueda de una solución a una problemática existente en el municipio que es el ruido.

“Quiero reconocer el esfuerzo que han realizado y felicitarles por la capacidad de poner en la agenda política una problemática ya casi histórica que afecta a muchas generaciones de andoaindarras.

“Consideramos que este debe ser el camino, el unir esfuerzos y sinergias en torno a la búsqueda de una solución a un problema, el del ruido, que lejos de mejorar, ha ido incrementando año tras año.

“Consideramos también que, debemos fomentar la búsqueda de consensos en torno a dos problemáticas que van de la mano. Descongestionar y solucionar el problema viario y sobre todo,

resolver definitivamente el problema del ruido.

